

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK IGANDEAN

Botoa emateko zortzi toki bizilekuaren arabera

■ Botoa goizeko 09:00etatik ilunabarreko 20:00etara eman ahal izango da.

BOTOA NON EMAN

Biterin	Floridan (Elizatxo ikastolan-G. Celaya)
Atzieta	Antziola (pareak: 2tik 42ra; inpareak: 1etik 33ra)
Elkano (pareak: 6tik 18ra; inpareak: 17tik 21era)	Elkano (31-33 portalak bakarrik)
Ezkiaga	Etxeberri
Felipe Sagarna	Florida
Gudarien plaza	Gartzia Goldaratz
Iturriaga	Karmelo Labaka
Izpizua	Latsunbe (4tik 36ra portal pareak)
Kardaberaz	Latsunbeberri
Latsunbe (7tik 15era portal inpareak)	Mañe i Flaquer
Kale Nagusia	Perkaiztegi (1, 2, 3 portalak)
Nafar kalea	Sagastialde
Oartzu	Sagastialdeberri
Orkolaga	
Plaza Berria	Laubidietan (Langile ikastolan)
Txirrita	Aristizabal
Urbietia	Iturregi
	Marieduts
Antziola auzoan (EPAn)	Jauregi bailara
Antziola (inpareak: 35etik aurrera; pareak: 44tik aurrera)	Karobieta
Galarreta auzoa	Sandiusterri
Latsunbe (inpareak: 33tik aurrera; pareak: 38tik aurrera)	Santa Barbara
	Sorgintxulo
Ereñotzun (Txirrita ikastolan)	Tellerigain kalea
Epela bailara	
Ereñotzu bailara	Larramendin (IMIn)
Pagoaga bailara	Larramendi
	Lizarraga
Elizatxon (Elizatxo ikastolan)	Madalena
Ibarrolaburu plaza	Oindi
Karabel	Victor Hugo
Olaeta	
Portu	Zikuñagan (eskola zaharretan)
Antsorena anaien kalea	Akerregi bailara
Elizatxo	Martindegi bailara
Elkano (1etik 7rako inpareak)	Osinaga bailara
Lizeaga	Zikuñaga bailara

LEGE BILTZARRERAKO Hauteskundeak datorren igandean izango dira. Hernanin zortzi leku daude botoa emateko; bakoitzak, bizi den kalearen arabera, batera edo bestera joan beharko du. Aukerak, berriz, zortzi dira abstentzioa edo zurian botatzea kontuan hartu gabe: EH, EAJ-EA, PSE-EE, PP, IU, PH (Partidu Humanista), EKA (Partidu Karlista) eta Askatasuna.

ELKANO LATSUNBE ETA ANTZIOLA

Kale hauetan bizi direnek portalaren arabera botatuko dute

batean ala bestean. Elkano kaleko 31 eta 33 portalekoek Floridara joan beharko dute, 1etik 7rako portal inpareetakoek Elizatxora, ginerakoek Biterira. Latsunbekoek hiru aukera dituzte: 7tik 15erako portal inpareak Biterin dute botoa eman beharra; 4tik 36rako portal pareak Floridan, Elizatxo ikastolan, gainontzekoek Antziolan. Antziola auzokoek Antziolan bertan 35etik aurrerako zenbaki inpareak dituzten portaletakoek eta 44tik aurrerako zenbaki pareak dituztenek. Gainontzekoek Floridan botatu beharko dute.

KUTXA EZBERDINAK

Botua eman beharreko zortzi puntuetan ere kutxa bat baina gehiago egongo dira. Bakoitzaren kalea eta abizena hartuko dira kontutan, botoa kutxa batean edo bestean sartzeko. Baina, guzti hau bertan adieraziaz egongo da, argi asko. □

XALAPARTA ELKARTEA

Aranora ibilaldia antolatu du maiatzaren 27rako, urtero bezala

■ Izen ematea zabalik dago elkartearen bertan.



Lehenengo urteko kuadrila, Aranora bidean.

XALAPARTA elkartak urtero antolatzen du Aranora ibilaldia. Aranon bazkaria izango dute gero eta Toka txapelketa arratsaldean. Izena emateko listak eta informazio gehiago, elkartearen bertan.

FERMIN CUESTA

'HERNANIAR BIKAINA' Xalapartak *Hernaniar Bikaina* izendatu ohi du urte biz behin. Aurtengoa Fermin Cuesta da. Fermin ezaguna da herrian kirolari eskeini dionagatik: urte askotan Hernaniko taldeko fut-

bol jokalaria izana, klubeko lehendakari eta direktibo ere urte askotan izan da. Futbolaz gain krossa, eskubaloia eta pelota ere egin ditu. Iaz CDHk Klubaren urrezko oroigarria jarri zion. Ekaineko urterreko afarian izandutako dute.

Orain arteko Hernaniar bikainak: J.M. Garin, Elias Kerejeta, CDH, Martin Zabaleta, Antxon Idarreta, Luis Blas Zuleta, Prudencio Ayerra, J. B. Adarraga, Ignacio Iruin, Manuel Sagarna, eta Jacinto Santín izan dira. □

OKERRAK ZUZEN

Batxilergoetarako matrikulazioa zabalik dago Hernani Institutuan

■ Zikloetarako matrikulazioa ekainean irekiko da.

IGANDEKO Kronikan bestera jarri baguen ere, hiru batxilergoetarako matrikulazioa da Hernani Institutuan zabalik dagoena. Natur eta Osasun Zientzietan, Humanitate eta

Gizarte Zientzietan edo batxilergo Teknologikoetan izena eman nahi duenak bihar du azken eguna. Zikloetarako (FPak) matrikulazioa, berriz, ekainaren 1etik 12ra. □



Galarreta gaina z/g - HERNANI

Gaur arratsaldeko 16:00etatik aurrera erremonte jaialdia:

- ⇒ 1. partidua ZIGANDA-ETXE BERRIA II / LARREA-URKO
- ⇒ 2. partidua EZKURRA-MENDIZABAL / ZEBERIO II-LIZASO
- ⇒ 3. partidua MATXIN-ETXABE / IÑIGO-IRIARTE
- ⇒ 4. partidua ZEBERIO I-ZUBELDIA / SARASUA-URRETABIZKAIA II

HALCON
BIDAIAK
Plaza Berria 2 - Tel. 943.554461
Faxa: 943.555903

Zuri zerbitzu hobea emateko lekuz aldatu gara.

Orain **Plaza Berria 2** an aurkituko gaituzu.

HALCON BIDAIAK
Plaza Berria 2 - Tel. 943.554461

Udalak ofizialki inauguratu du Txantxillako aparkalekua

■ Asteartean inauguratu zuen ■ Herri barruko zenbait arazo konpondu omen ditu.



Aparkalekuaren inaugurazioa, atzo, Txantxillan.

UDALAK astearte eguerdian inauguratu zuen Txantxillako aparkalekua, obra egin duen enpresakoak bertan zirela.

DATUAK

Inaugurazioan zenbait datu interesgarri eman zituzten. Txantxillatik 50.000 m kubiko lur ateratu zituzte. Lur pila hori San-

ta Barbarako betelanerako erabil da. Txantxilla, denera, 7 metro jeitsi da behera.

Obra, aurrekontuan kalkulatu baino, 12 milioi gehiago kostatu da. Lurra kendu eta barrenan gelditutako zorua erabat hezea eta buztintsua zegoen. Hori behar bezala sendotzeko metro eta erdiko harri kozkor

kapa eta beste lamina berezi bat bota behar izan diote. Eta horrek garestitu du obra.

Kotxeak ibiltzeko 3 metro zabaleko karrilak jarri dituzte, joan etorrikoak. Aparkalekuak 7.000 metro karratu ditu eta 300 kotxerentzat tokia du. Horietatik batzuk ezinduentzakoak dira. Zabaldu denetik ez da dena bete; gehienekoan, lautatik hiru, asteburu batean.

Ramirez, udaltzaingo buruak esan zuenez, kaxko inguruetan antzeman da Txantxilla zabaldu denetik, batez ere Porturako bidean, espaloia kotxez lepo egoten baitzen.

ABISUA

Txantxilla zabaldu zenetik, udalak hiru astetako epea utzi du jendeak, batez ere asteburuetan, kotxea aparkatu behar den lekuetan utzi dezan. Abisu epe hori datorren asteburuan bukatzen da. Handik aurrera, neurriak hartuko ditu.

■ BOLA JOKOA

Hernaniarrak fuerte hasi eta pattal bukatu, Bikotekako Txapelketan

■ Lehenengo tiraldian 4 sartu ziren 5 aurrenekoetan ■ Azkenean, seigarrenetik atzera gelditu dira denak ■ Igandean, Gipuzkoako Banakako Txapelketa hasiko da.



Ereñotzuko bolatokian, Erregularitateko finalean.

HERNIARRERK ez dute zortetik izan Gipuzkoako Banakako Txapelketako bigarren tiraldian. Lehenengoan, Miner aita-semeak, Arrozpide-Igarteburu, Aurrelio-Santos eta Larrañaga-Goenaga aurreneko bostetan sartu ziren, oso tiraldi ona eginda.

Mutiloan ez zuten hainbeste asmatu eta Juaristi-Gereño legazpiarrak izan ziren txapeldunak. Miner-Miner, Ugalde-Burugain eta Santos-Zapirain 6, 7 eta 8-garren gelditu dira, hirurak 167na brilarekin.

Bestalde, Gipuzkoako Banakako txapelketa igandean hasiko da, Seguran. □

■ BERTSOLARITZA -GIPUZKOAKO KANPORAKETA-

Zelaia, Zerain eta Agirrek ostiral eta larunbat honetan jokatzen dute dena

■ Zelaia eta Zerain Azkoitian, Baztartzon ■ Agirrek, Irunen, etzi, Amaian ■ 22:30.

DATOZEN bi asteburuetan erabakiko da Gipuzkoa kanporaketatik zein bertsolari pasako diren Txapelketa Nagusirako. Kanporaketa honetatik 12 inguru pasako dira. Oraingoan, lau hernaniar ari dira lehian eta

hiru -Zelaia, Zerain eta Agirre- sei aurrenekoetan daude. Extitxu Eizagirre, berriz, 19garren, baina, 12garrenetik 10 puntura.

EUSTERA

Bihar Azkoitian eta etzi Irunen,

hernaniarrak aurreko saioko aldeari eutsita nahikoa dute. Zelaia eta Agirrek badute hori egiteko adina maila eta esperientzi. Zerainek plaza gutxiago du, baina, orain artean txukun eta eginez ari da. Huts egin gabe. □

■ HITZ BITAN



Udaletxean Zerdeñako eta Hernaniko ikasleak.

✓ ITALIATIK HERNANIRA

Zerdeñako ikasleak, Langileko ikasleengana.

Langile ikastolako DBH bigarreneko ikasleak trukaketak egiten dituzte. Hernaniarrak, aurreko batean Italiara joan ziren, Zerdeñara. Orain, italiarrak Hernani eta inguruak bisitatzeko aukera izango dute egunotan. Asteartean, alkateak eta zinegotziek harre- ra egin zieten udaletxeko pleno aretoan.

✓ HIRIGINTZA BATZORDEA

Portun bi bizitza etxea egiteko eskaria dago.

Gaur arratsaldean Hirigintza batzordea bilduko da. Portu auzoan, partikularrek bi bizitza etxea egiteko baimena eskatu dute ete hori da batzordeak aztertuko duen puntuetako bat. Batzordeak beste sei puntu ere aztertuko ditu.

✓ HAUR KANTARI TXAPELKETA

Hernaniko taldea ez da pasa Euskal Herriko finalera.

Hernaniko musika eskolako taldeak Kantu Txapelketako Gipuzkoako finalean kantatu zuen, joan den larunbatean Tolosan. Irabazlea Donostiako talde bat izan zen. Euskal Herriko finalean, beraz, ez da hernaniarrak izango. Hernanin ikasi eta *Ozenki* abesbatza dabilen aranoar bat bai, ordea: Maider Ansa, Nafarroako txapelduna.

✓ 3/4 PLATAFORMA

Kontzentrazio ixila gaur Plaza Berrian. Hernaniko hirulaurden plataformak kontzentrazio ixila egingo du gaur Joxan Pagola, Kepa Aira, Xabier Arnaiz eta Pakito Lujanbioren askatasuna eskatzeko. Lau hernaniarrak zigorraren hiru laurdenak bete dituzte.

✓ ZINEA

Zine emanaldiak Itxaski eta Triku tabernetan.

Maiatzean eta ekainean 4 pelikula botako dituzte bi taberna horietan. *La vida es bella* bota dute dagoeneko. Maiatzaren 22an *Smoke* botako dute, Itxaskin. Ekainean *Bailando en la oscuridad* eta laburmetrai saioa. Emanaldi guztiak 21:00etan izango dira.

✓ GALDUTAKOAK

Urrezko pultsera bat galdu da. Igande goizean pertsona batek urrezko pultsera bat galdu zuen udaletxeko arkupe eta elizako atari inguruan. Pultserak 3 izen dauzka grabatuta. Balore sentimental handiko pultsera da, eta aurkitzen duenak ordaina izango du. Aurkitzen duenak deitu telefono honetara: 943 55 69 81 (Begoña). □

IRRATIAK

(E.M. 99.2) 11:40etan: Jose Luis Aizpuruk antzerkirako gomendioa: *Ohianaren Legea*. 12:00etan: Aitor Mendiluzek Gipuzkoako Bertsolari Txapelketari buruz. 22:00etan: Magazin Musikala: Bob Marley hil zela 20 urte: bere omenezko saioa. Gonbidatua *Dr. Deslayko* abeslaria.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

☎ Taxiak: 943 550093
☎ Udaltzaingoa: 943 333288
☎ DYA: 943 464622
☎ Autobusak: 943 556662
☎ Anbulatorioa: 943 557750
☎ Jokalari anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

☎ Egunez: Gomez Nagusia 15 ☎ 943 554892
☎ Gaez: Gomez Nagusia 15 ☎ 943 554892

IRAGARKI MERKEAK

■ Bi edo hiru astez aitona zaintzeko pertsona bat behar dut. Deitu: ☎ 943- 33 34 87

■ Pintore autonomo bat behar da. Presakoa da. Intere- satuak deitu: ☎ 656 71 38 55 (Alber).